

Basta de recortes

Euskal langileok geure etorkizunaren jabe



ALako Idazkari Nagusia, Adolfo Muñoz "Txiki"ren interbenzioa
Intervención de Adolfo Muñoz "Txiki", Secretario general de ELA

2010ko ekainak 12
12 de junio de 2010

Ekainaren 29an greba orokorra

BADAKIGU ZEIN UNETAN BIZI GAREN. Erreforma gogorak datozkigu. Bata bestearen atzetik, "merkatuak" asetzeko. Zeintzu dira merkatuak? Finantza-boterea, benetan agintzen duena. Diru publikoa erruz erabilia salbu geratu diren lotsagabe horiek Zapaterori dei egiten diote, erreformak egin ditzala exigitzeko. Eta Zapaterok egin ditu. Eurei ez zaie ahaleginik eskatzen... Botere politikoak kapitalari men egiten dio, honen esanetara baitago. Hau ezin dugu onartu. Horren aurka greba orokorra deituko dugu ekainaren 29rako.

Gobernuek ase ezineko munstro horri eman diote jana; behin kutxa publikoak hustuta, gure eskubideen kontra ekiteko. Finantza-botereak eta patronal handiak agintzen du.

Politikan ELKARTASUN adierazpenik ez dago. Agintarien ahotan 'elkartasuna' hitz hutsa, gezurrezkoa, hipokrisia hutsa da... Ondo dakigu krisia ez dutela eragin ez gizarte-gastuak, ez lan-baldintzek. Baina helburua bat da: langabeziak eragindako izua baliatzea erreformak egin eta berriro errenta-transferentzia handi bat bideratzeko. Errenta gure poltsikoetatik kapitalaren eskuetara doa. Nola? Lan-merkatuko eta gizarte-arloko prekaritatea handituz, zerga-politika injustua eginez eta pribatizazioa areagotuta.

Aurre egin behar diegu eta gure eskubide laboral eta sozialak defenditu behar ditugu. Gure betebeharra da. Horrela jokatzeko dutenekin ez daukagu zerikusirik. Inongo zerikusirik. Eskubideak ez dira berez emandako zerbati. Eskubideak borrokatzen diren neurrian gauzatzen dira. Horregatik, egoera honetan, behin eta berriz erasotzen dituztenean, mobilizazioa beste biderik ez zaigu geratzen: Ekainaren 29an greba orokorra.

M-21eko Greba orokorra: ARRAZIOA GENUEN

Duela urtebete baino gehixeago krisia zela-eta HIRU, EHNE, EILAS, ESK, LAB eta ELAK proposamenak partekatu genituen. Eta horrek balio handia du.

M-21eko greban arrazoi genuen. Greba botere politiko eta ekonomikoaren aurka egitera ausartu ginen. CCOO eta UGT ere aurrez-aurre jarri ziren. Greba orokor harekin asmatu egin genuen, eskuineko politikak eta beren arduradunak agerian utzi baitzituen. Asmatzea izan zen ere greba deitzen ausartzea, argi hitz egitea: eskuineko politikak aldatu beharra zegoen.

- Esan genuen orduan: politikak aldatu ezean murrizketak gure eskubide laboral eta sozialetan etorriko ziren. Arrazoi genuen; hemen ditugu murrizketak.
- Esan genuen ere gobernuetako alderdi politikoak aldatzen zirela, baina inondik ez egiten dituzten politika sozial eta ekonomikoak. Orain eskubide sozial eta laboralen kontrako murrizketa fasean daude, beldurra hedatzen dute, diziplina ezartzeko, eta berdin da gobernuan eskuinekoak ala sozialdemokrata izenekoak egon.

Gobernuek euren babeserako hesi bat egin dute; manipulazio itzela da oinarria, alternatibak ezkutatzeko eta eztabaida politiko nahiz soziala saihesteko.

EGOERAREN EZAUGARRIAK:

1.- ALDEBAKARREKO ERABAKIAK. Mugimendu sindikalari esaten digute: "Nahi baduzu, zatozte nire atzetik". Ez dago elkarrizketa sozialik; antzezpen bat besterik ez da. Botere politikoa botere ekonomikoaren menpe dagoenez, "elkarrizketa soziala" erabat desitxuratu du; gaur egun gizartea kontrolatu eta desmobilizatzeko prozesu hutsa da. CC.OO.ek eta UGTk. Patronalari eta Gobernuari behar zuten denbora eman diete oraingo egoeraraino iristeko. Laguntzaile izan dira langile-klasearentzako desarmerik arriskutsuenean, desarme ideologikoan.

2. GOBERNUK BAKARRIK UTZI GAITUZTE. 'Alderdi bakarra'ren drama. Gobernuko kide izateko aukera dutenak bat datoz.

3.- DOTRINA BAT EZARTZEN DUTE: Murrizketa da bide bakarra, host, gizartegastua gutxitzea. Zerga-politikak egon beharko luke eztabaidaren erdigunean. Eskandalua da gertatzen dena. Europar adina ordainduko balira, estatuan 100.000 milioi gehiago bildu litezke, eta HEHn 5.300 milioi gehiago... Defizita ia desagertzeraino gutxituko litzateke... Betiko eskuin petoaren murrizketak dira.

4.- ETENGABEKO PROZESUA: Pentsioen erreforma prestatzen ari dira. Eskubide laboral eta sozial gutxiago, eta pribatizazio gehiago. Pobreago eta ahulago nahi gaituzte.

5.- UNIFORMEA: Herri-administrazio guztiak arrastaka eramaten ditu. Eta badu beste ondorio bat: autogobernu izpirik ere ez da geratzen. Ez dago autogobernurik. Defizita, zor publiko maila, funtzionarioen lan-baldintzak... Dena Madrilen erabakitzen da; dena da oinarritzkoa... Penagarria da, baina gurean bizi den eta lan egiten duen jendeak elkartasun politikak behar dituenean, autogobernua desagertu egiten da. Erakundeetako alderdi abertzaleek zer egiten dute? Lobby ekonomikoak sortzea bultzatzen du; hor dugu Gipuzkoa Aurrera. Lobby horien helburua politika gidatzea da.

6.- PATRONALARENTZAKO BABESA. Bera da pribilegio gehien duena. Zer gehiago behar du patronalak? Pribilegiozko kokapen horretatik lan-baldintzen gaineko xantaia egiten dute, eraso egiten diote negoziazio kolektiboari...

7.- GURE LEKUA, SINDIKALISMO INDARTUA: Gure lekua ez da, noski, politikaren bidelagun izatea; ezin diogu inongo babesik eman. Gertatzen ari denari 'elkarrizketa soziala' deitzeak azalpen bat du: hala hitz egiten dutenen menpekotasun finantzarioa. Sindikalismo errebindikatiboaren mobilizatzeko ahalmenak helburu bat du, politikak aldatzea, ez boterearekin tratutan ibiltzea mesede politikoei eskerrak euskal gehiengo errepresentatiboaren kontrako monopolio sindikala eratzeko.

ALDARRIKAPEN NAGUSIAK:

1. ERREFORMA LABORALA.

A. **NEGOIZAZIO PROZESUA.** Gizartearen kontrola eta desmobilizazioa zuen helburutzat. Iluna izan da, desinformazioz eta filtrazio interesatuz josia. Zapaterok esan zuenetik "funtsezko gaiak ukituko" zirela, guztiek zekiten azken emaitza zein izango zen. Eta patronala garaile, betiere. CCOO eta UGT lankide izan dira emaitza jakina zuen prozesu honetan; bazekiten erreforma 16an ministro kontseiluak onartuko zuela, eta 22an parlamentuan bozkatuko zela; horrela Zapaterori denborak administratzeko aukera eman diote.

- B. **EDUKIAK.** Erreforma laborala lan-zuzenbidearen mamiari (ahulenak babestea) egindako eraso da.
- a) Krisi hau patronalarentzako merkeena izan da jendea kaleratzerakoan (gehienek ez dute kalteordainik jaso, aldi baterako kontratuen ondorioz).
 - b) Gizakien lana salgai hutsa bihurtu nahi dute, erabili eta botatzeko moduko zerbait.
 - c) Lan-baldintza duinak dituztenen kaleratzeak erraztu eta merkatu nahi dituzte, langile prekarioekin ordezkatzeko.
 - d) Enpresarioei diru publikoa emango diete, langileak merkeago kaleratzeko.
 - e) Hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeko modua onartuko dute.
 - f) Kolokazio enpresen lan mertzenarioa legeztatuko dute; irabazia pertsonekin trafikoa eginez lortuko dute.
- C. **MOBILIZAZIOA.** Mobilizazioa erreforma hauen ardura duenaren kontra egin behar da; Zapateroren kontra, eta berarekin bat egiten dutenen kontra. Mobilizatu egin behar dugu kapitalaren menpe jartzen diren gobernuen aurka.
- D. **EZEZKO BOTOA.** Euskal alderdiei exigitzen diegu aurkako botoa eman dezatela.
2. **GOBERNUA BABESTEKO 'elkarrizketa soziala' ren AURKA.** CC.OOek eta UGTk esan dute dagoeneko jarraitu egingo dutela Lopez eta Sanzi babesa ematen, era antidemokratikoan. Euskal gehiengoan kontrako gurutzadari ekin diote.
3. **LAN-HARREMANEN ETA GIZARTE-BABESAREN EUSKAL ESPARRUA:** Tresna politiko eta ekonomikoak behar ditugu, eta indar-erlazio jakin bat behar dugu, tresna horiek elkartasunaren alde ipintzeko.
4. **ZERGA-PRESIOA HANDITZEA (EBko batez besteko mailaraino).** Saiatu egin behar dugu hau eztabaida sozialaren erdigunean kokatzen. Hain garrantzi handiko gaia ezin da arinkeriaz hartu. Datorren asteazkenean bilduko dira aldundiak eta Eusko Jaurlaritza Zergak Koordinatzeko Organoan, bat datozen kontu bati ekiteko: "zergak ukitu baino lehenago murrizketa asko egin behar" omen dira. Hau lotsagarria da.
5. **PARTE HARTZEA.** Eztabaidarik eta informaziorik ez dagoenean, zertan geratzen da demokrazia? Guk politikan sinesten dugu, eta parte hartzeko aukera izan nahi dugu, gure iritzia emateko.

KONKLUSIOA: Ez dago beste biderik. Erreforma laborala latza dator, eta bere tankerako erantzun bat eskatzen du. Hala uste dugu greba orokorraren ardua iritsi dela eta ekainaren 29rako deituko dugu greba orokorra.

El 29 de junio Huelga general

CONSCIENTES DEL MOMENTO: Preparan duras reformas. Una tras otra – dicen- para contentar a los “mercados”. ¿Quiénes son los mercados? El poder financiero, que es quien manda. Los mismos *sinvergüenzas* a los que se ha salvado con dinero público son los que llaman a Zapatero para exigirle esas reformas. Y Zapatero las hace. Para ellos no hay previsto ningún sacrificio... El poder político, subordinado al capital, les hace caso. Es inaceptable. Ante esta situación vamos a responder con una huelga general el próximo 29 de junio.

Los gobiernos dan comer al ogro, para que nos coma; para que una vez expoliado lo público, vayan contra nuestros derechos. Es el poder financiero y la gran patronal los que mandan.

No hay signo de SOLIDARIDAD en la política. En boca de los gobernantes esa palabra es algo vacío, engañoso, pura hipocresía... Sabemos que ni el Gasto Social, ni las condiciones de trabajo han tenido nada que ver en esta crisis. Y sin embargo, su objetivo es aprovechar el miedo que genera la pérdida de empleo para, haciendo reformas, provocar una nueva transferencia de renta. Renta que va de nuestros bolsillos a los del capital. Eso se consigue con más precariedad laboral y social, con una política fiscal injusta y con más privatización.

Hay que dar la cara y defender los derechos laborales y sociales. Es nuestra obligación. No tenemos nada que ver con quienes hacen esto. Nada que ver. Los derechos no se transmiten vía hereditaria. Los derechos existen en la medida en que peleamos por ellos. Por eso, en esta coyuntura, en la que son sistemáticamente atacados, no hay otra alternativa que la movilización. El hora de una nueva huelga general y la mayoría sindical la va a convocar para el 29 de junio.

HG 21-M: TENÍAMOS RAZÓN.

Hace más de un año que HIRU, EHNE, STEE, ESK, LAB y ELA compartimos propuestas ante la crisis. Y eso tiene mucho valor.

Teníamos razón en la HG del 21-M. Nos atrevimos a hacerla contra el poder político y el económico. Tuvimos en contra a CC.OO y UGT. Esa huelga general tuvo el acierto de responsabilizar a las políticas de derechas y a quienes las habían realizado. El gran acierto fue convocarla. Había que cambiar las políticas de derechas.

- Decíamos que si no se cambiaban los ajustes se harían en nuestros derechos laborales y sociales. Teníamos razón, aquí están esos ajustes.
- También decíamos que cambiaban partidos en los gobiernos, pero no el contenido de las políticas sociales y económicas. Ahora están en fase ajuste contra los derechos sociales y laborales; crean miedo para disciplinar, y es igual que sean de derechas o que se llamen socialdemócratas.

Los gobiernos están creando para sí un manto de protección, en base a una gran manipulación para ocultar las alternativas y eludir el debate político y social.

CARACTERÍSTICAS DE COYUNTURA:

1.- UNILATERALIDAD. Al movimiento sindical nos dicen: "Si queréis me acompañais". No hay diálogo social; es una pantomima. La subordinación del poder político al económico ha desfigurado por completo el "diálogo social"; hoy sólo significa un proceso de control social y de desmovilización. CCOO y UGT han dado a la patronal y el gobierno el tiempo que necesitaban para llegar hasta aquí. Han colaborado en el desarme más peligroso para la clase trabajadora: el ideológico.

2.- LOS GOBIERNOS NOS DEJAN SOLOS. El drama del "partido único". Los que tienen opción de gobierno están de acuerdo.

3.- IMPONEN UNA DOCTRINA: SOLO CABEN AJUSTES, esto es, reducir el gasto social. La fiscalidad debería estar en el centro del debate. Es, sencillamente, un escándalo. Si se pagaran los mismos impuestos que en Europa se podrían recaudar 100.000 millones de euros más en el Estado y 5.300 más en HEH. El déficit se reduciría a parámetros insignificantes... Es la política de la derecha más rancia.

4.- PROCESO CONTÍNUO: Están preparando la reforma de pensiones. Menos derechos laborales y sociales, más privatización. Nos quieren más pobres e indefensos.

5.- UNIFORME: Arrastra a todas las Administraciones. Con un efecto añadido: No queda nada de autogobierno. El déficit, el nivel de deuda pública, las condiciones de trabajo de los funcionarios... Todo se decide en Madrid, todo es básico... Cuando la gente que vive y trabaja en nuestro país necesita políticas de solidaridad el autogobierno desaparece. Y mientras eso sucede, el nacionalismo institucional ayuda a la creación de lobbys económicos, como Gipuzkoa Aurrera. Lobbys que tienen como misión dirigir la política.

6.- COBERTURA A LA PATRONAL. Es la gran privilegiada. ¿Qué más quiere la patronal? Desde ese privilegio están chantajeando a las condiciones de trabajo, atacan la negociación colectiva...

7.- NUESTRO LUGAR, MÁS SINDICALISMO: Nuestro espacio está fuera del acompañamiento. Llamar a esto "diálogo social" sólo se puede entender desde la falta de autonomía financiera de quienes lo hacen. La capacidad de movilización del sindicalismo reivindicativo busca un cambio en las políticas, no el compadreo para, desde el favor político, imponer un monopolio sindical contra las mayorías representativas vascas.

REIVINDICACIONES BASICAS:

1. REFORMA LABORAL.

A. **PROCESO DE NEGOCIACIÓN.** Buscaba el control y la desmovilización social. Ha estado proceso plagado de opacidad, desinformación, filtraciones interesadas. Desde que Zapatero dijo que "se tocarían temas esenciales", todos sabían el resultado final. La patronal ganaba en cualquier hipótesis. CCOO y UGT han colaborado en un proceso con resultado conocido; a sabiendas de la aprobación el día 16 en Consejo de Ministros, y el 22 en el parlamento, han permitido a Zapatero la administración de los tiempos.

- B. **CONTENIDOS.** La Reforma Laboral es un ataque a la esencia del derecho laboral.
- a. Esta crisis ha sido la más barata para los empresarios a la hora de echar trabajadores a la calle (la mayoría temporales sin indemnización).
 - b. Quieren convertir el trabajo humano en pura mercancía desechable.
 - c. Se trata de abaratar y facilitar el despido de quienes tienen condiciones dignas para sustituirlos por gente precaria.
 - d. Dar dinero público a los empresarios para despedir más barato.
 - e. Permitir la inaplicación del convenio colectivo.
 - f. Legalizar el trabajo mercenario de las empresas de colocación, que obtendrán beneficios traficando con personas.
- C. **MOVILIZACIÓN.** Hay que hacer la movilización contra el responsable de estas reformas; contra Zapatero y contra quien le apoye. Hay que hacer la movilización contra los gobiernos que se ponen al servicio del capital.
- D. **VOTAR NO.** Exigimos a los partidos vascos que voten en contra.
2. **NO AL "Diálogo Social" PARA DAR COBERTURA ESTAS POLÍTICAS.** CC.OO y UGT ya han dicho que seguirán dando cobertura a López y Sanz. De forma antidemocrática. Están de cruzada contra las mayorías vascas.
3. **MVRL y PS:** Necesitamos instrumentos políticos y económicos y una relación de fuerzas para que esos instrumentos sean puestos al servicio de la solidaridad.
4. **ELEVAR PRESIÓN FISCAL (a la media de la UE).** Hay que presionar para colocar eso en el centro del debate social. Denunciando el intento de banalizar un tema tan importante. El miércoles próximo se reúnen diputaciones y Gobierno Vasco en el OCT para llevar a efecto algo que comparten; que "antes de tocar la fiscalidad hay que hacer muchos ajustes". Es una indecencia.
5. **PARTICIPACIÓN.** Sin debate ni información... ¿Qué queda de la democracia? Nosotros creemos en la política y exigimos participar y dar nuestra opinión.

CONCLUSIÓN: No hay elección. Los contenidos de la reforma laboral son muy duros y exigen una respuesta en proporción a los mismos. Así lo pensamos nosotros. Y por eso convocamos una huelga general para el próximo 29 de junio que, no dudamos será secundado mayoritariamente en Euskal Herria.